



HAMAR URTE BATU ETA SEGI

Denon Eskolaren X. Urtemuga

Ikasturte honetan Denon Eskolaren X. Urtemuga ospatzen dugu.

Denon Eskola ekimen ezberdinak batzearekin sortu zen, orduko lehen hezkuntzan zegoen HerriEskola, bigarren hezkuntzan zegoen Santo Tomas de Aquino eta Aldundiaren babespean zeuden Ikastolak batzetik hain zuzen ere. Etorkizun ikuspegia zuen pertsona talde gogotsu batek indarrak batu eta federazioa sortzearen beharra ikusi zuen. Ez zen erraza izan baina lortu egin zen eta ordutik Denon Eskola bideak irekitzen joan da hezkuntzaren alorrean gurasoen ezinbesteko erreferente bihurtuz.

Horregatik, X. urtemuga honetan izan ginena, garena eta izango garena ospatu nahi dugu, hau da, konprometitutako federazioa, lan egiteko ahalmen izugarriarekin eta eskola publikoa hobetzeko helburua daukana.

Lerro xume hauek Denon Eskola egi bihurtzeko lan egin zutenei eta proiektuan sinetsi zuten eta sinesten duten guztiei egin nahi diegun omenaldi txiki bat izan nahi dute.

Bideo oroigarria

Denon Eskolaren X. Urtemuga dela eta bideo oroigarria sortu dugu eta ospakizun ezberdinen artean hurrengo azaroaren 15ean aurkeztuko dugu. Bertan esparru ezberdinetatik Denon Eskolak 10 urte hauetan zehar kalitatezko eskola publiko baten alde garatutako zereginetan parte hartu, lagundu edota lekukoak izan direnen testigantzak jaso nahi izan dira. Zentzu honetan eskerrak eman nahi dizkiegu bideo-dokumental hau burutzea posible egin duten pertsona guztiei. Inongo interesik gabe lan honetarako eskaini dituzuen dedikazio eta ahaleginetatik Mila Esker:

JAVIER NOGALES, CCOO – IRAKASKUNTZA—**M^a CRUZ DOMELO**, DENON ESKOLA – Z. BATZORDEA 1997-2006—**PACO HERNANDEZ**, Z. BATZORDEA 2003-2007—**KIKE PEREZ DE ARRIBA**, KANPEZUKO IGEa—**IÑAKI BERAZA**, AGURAINGO ALKATEA—**BELEN CORRAL**, SAMANIEGOKO IGEa—**ENCINA SERRANO**, HEZKUNTZA ZINEGOTZIA 1999-2007—**PATXI LAZCOZ**, VITORIA-GASTEIZKO ALKATEA—**ANA OSABA**, BLAS LOPEZ - GORBEIALDEKO IGEa—**M^a JOSE CARRERO**, EL CORREO—**AMELIA BARQUIN**, RAMON BAJOKO IGEa—**IOSU GANGOITI**, ARABAKO LURRALDE ORDEZKARIA—**IMANOL ZUBIZARRETA**, BAIKARAKO KOORDINATZAILEA. – GUIPUZKOAKO IGEen FEDERAZIOA.—**AMAIA SESMA**, VITORIA-GASTEIZKO BERRITZEGUNEA—**MIKEL VITERI**, DENON ESKOLA – Z. BATZORDEA 1997-2000—**CRISTINA DIEZ**, LZ DE GUEREÑUKO IGEa – Z. BATZORDEA 2007—**JOSE ANGEL CUERDA**, VITORIA-GASTEIZKO ALKATEA 1979-1999—**DELIA TOBIAS**, CADENA SER—**IÑAKI GERENABARRENA**, VITAL KUTXAKO LEHENDAKARIORDE LEHENA—**CARMEN MEDIAVILLA**, DENON ESKOLAKO FUSIO PROZESUA – HEZKUNTZA INSPEKTOREA—**SANTA GONZALEZ**, DENON ESKOLAKO PRESIDENTEA 1997-2000 – DENON ESKOLAKO KOORDINATZAILEA—**JUAN CARLOS ALONSO**, DENON ESKOLAKO PRESIDENTEA 2000-2005 – EHIGE KONFEDERAZIOAREN PRESIDENTEA—**LURDES LEKUONA**, DENON ESKOLAKO PRESIDENTEA 2005 URTETIK

Rafael Feitoren ponentzia: “Familien parte hartzea eta eskola publikoa”

Ospakizun ekitaldien barruan hurrengo azaroaren 15ean Rafael Feito izango dugu gure artean. Bera Madrilgo Unibertsitate Konplutensean Zientzia Politiko eta Soziologia Fakultatean Soziologia irakasle titularra dugu. Egun Gizarte Egitura saileko burua da zeinean Hezkuntzaren Soziologia klaseak ematen dituen. Hainbat liburu idatzi ditu, besteren artean: Nacidos para perder. Un análisis sociológico del rechazo y del abandono escolares (1990), Los retos de la educación obligatoria (2000), Una educación de calidad para todos. Reforma y contrarreforma educativas en la España actual (2002) eta beste hainbat artikulua aldizkari espezializatu zein orokorretan.

Burutuko duen aurkezpenaren izenburua “Familien parte hartzea eta eskola publikoa” izango dugu, zeinean eskola publikoaren kudeaketan familien parte hartzeak duen garrantzia arituko den.

Antzezlanak: “Noskiren bidaia magikoa”

X. Urtemuga dela eta bultzatutako beste ekimen bat euskara hutsean antzezlan bat sortzearena izan da, “Noskiren bidaia magikoa”, zeinean pertsonaia nagusia Denon Eskolako Euskara Batzordetik jaiotako **Noski** dugun. Aipatutako antzezlan horretan euskara sustatzearen alde lan egiten duen Noski heroiaren irudia indartu eta zabaltzeaz gain azken urteotan Denon Eskolaren ekintzen lan ildo nagusi izan ditugun bestelako gaiak ere islatu nahi izan dira: kulturartekotasuna, liburuen berrerabilpena... Zentzu honetan horrelako gaiak lantzeko garaian obra hau elementu osagarri gisa ikastetxeetarako erabilgarria suertatzea nahi genuke. Hori guztiagatik, hurrengo azaroaren 14an, ostirala, Lakua Gizarte Etxeko Federico Garcia Lorca antzokian eta arratsaldeko 18:30etan estreinaldia antzeztuko da, eta zuek guztiak, gurasoak eta seme-alabak zein ikastetxeetako irakasle eta zuzendaritza taldeetako arduranak han egotea nahi genuke guztion artean ikusi eta baloratu dezagun.

PROGRAMA

Denon Eskolaren X. Urtemuga – Batu eta Segi 2008ko azaroak 14 – 15

Azaroak 14 ostirala

18:30 “Noskiren bidaia magikoa” antzezlanaren aurkezpena
 Federico García Lorca antzokia
 Lakua Gizarte Etxea – Etxanobetarren zidorra, 2

Azaroak 15 larunbata

11:00 Hasiera
 Lurdes Lekuona Laburu, Denon Eskolako Presidentea

11:15 Hitzaldia – “Familien parte hartzea eta eskola publikoa”
 Rafael Feito Alonso, UCM-ko soziologia irakasle titularra

12:15 X. Urtemugako bideo oroigarriaren aurkezpena

13:00 Denon Eskolaren X. Urtemugako logotipo lehiaketako sarien banaketa.

13:15 Luncha

Obra Social

Caja Vital Vital Kutxa

Gizarte-Ekintza

